

S i n d i k a l H e z i k e t a S a k o n d u z




5.

Lan osasun eta
segurtasun
xedapenak
arrantza o
barruan.



Zbkia
SHK-00040
DOKUMENTAZIO
ZENTROA



5.


**Lan osasun eta
segurtasun
xedapenak arrantza
ontzien barruan.**

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Sarrera txiki honek helburu bakarra du: orain dela hiru urte Europako Elkarteak argitaratu zuen material hau modu praktikoan eta partaidetzari begira irakur dezazuela eskatzea.

Espero dugu hurrengo edizioan zeuen ekarpenak izango ditugula, eta, batez ere, guztion artean ahal bezain laster ekingo diogula arrantza-untzietako lan baldintzak erabat aldatzeari, baldintza horiek onartezinak direla uste dugu eta.

Bide horretan abiatzeko, informazio eta prestakuntza materiala argitaratuko dugu, inkestak egingo, erakusketak, hitzaldiak eta jardunaldiak antolatuko, eta elkarrizketa zein negoziazio mahaiak eratu, baita, beharrezkoa denean, kalera aterako ere.



Lan baldintzak

arrantza-untzietan.

Arrantza-jardueraren berezitasunak

• Lantokian.

Itsasuntzia plataforma mugikorra da; geldirik ez egoteak oreka falta eragiten du, eta horrek areagotu egiten du lanaren segurtasunik eza. Lan hori, gainera, bada berez nahiko arriskutsua.

Itsasuntzietako lan gehienak kubiertan egiten dira. Langileak baldintza atmosferiko latzak jasan behar izaten ditu: bero eta hotz handia, hezetasuna, ekaitza, etab.

Ez dago lan-ordutegirik. Lanaren eritimoa itsasoak eta harrapake-

tek markatzen dute. Astero 80 ordu inguru ematen dira lanean. Ez dago ez iganderik ez asteko atsedenaldirik, eta egunez zein gauez lan egiten da. Eguneko atsedenaldiak ez du inoiz 4-5 ordu baino gehiagorik jarraian irauten.

Ohiko ordainketa mota "partearen arabera" deritzana da, hau da: soldata harrapatutako arrainkopuruaren arabera da. Horrek egundoko ahalegina eskatzen du etengabe.

Horri guztiari itsasuntziz ibiltzeak berez dituen arriskuak gaineratu behar zaizkio: itsasperatzeak, naufragioak, ur-zirrituak, suteak, etab.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

• Bizimodua itsasuntzian.

Itsasuntzia bizileku eta lantokia da aldi berean. Zenbait arrantza motatan, marinelak 5/6 urtez "bizi" izaten dira itsasuntzian.

Itsasuntziko bizi-baldintzek zeri-kusi handia dute arrantza-sistemarekin eta itsasuntziaren ezau-garriekin (mota, tamaina). Hala eta guztiz ere, eskuz egindako arrantzak (betiko arrantza) itsasuntzi-protzentajerik handiena du Europako Elkartearen barruan. Horrelako itsasuntzieta-ko espazioak oso txikiak dira, pentsa daitekeena baino txikiagoak kasu askotan. Logelak konpartitu behar dira, eta, horrenbestez, ez dago inolako intimitaterik. Higienea, berriz, nahiko badaezpadakoa izaten da sarri askotan.

Beste alde batetik, lanean ari direnean jasaten dituzten arazo berdinak (zarata, dardara) atse-denaldietan ere jasan behar izaten dituzte langile hauek.

Itsasuntzian denbora luzez egon behar izateak arazoak sortzen ditu, eta ez familiaren inguruan bakarrik. Izan ere, norberaren bizilekutik urrun egoteak beste talde sozial batzuekiko kontaktua eragozten du.

Ondorioak

Lan jarduera guztien artetik, arrantza da EEEko herrietan istripu-indizerik handiena duena.

Heriotza eragiten duten istripuen urteko tasa 1000ko 2koa da -batez beste- arrantzaren kasuan, Europako Elkarteko herrietan. Oso arriskugarritzat jo ohi diren gainerako jardueren kasuan, hala nola eraikuntzan, meatzaritzan edo nekazaritzan, berriz, tasa hori 1000ko 0,3koa da.

Jarduera sektore honek 280.000 langile biltzen ditu Elkartearen barruan. Istripu hilgarri bat izateko marinela batek duen probabilitatea ehuneko hirukoa da, eta istripu larri bat izateko ehuneko berrogeita hamarrekoa.

Langileek karga fisiko eta psikiko nabarmena jasan behar izaten dute etengabe, itsasuntzian dabiltzanean; horren ondorioa hauxe da: euren bizi-itxaropena beste kolektibo askorena baino txikiagoa dela.

Marinelek "naturalzat" jotzen dituzte euren hilkortasun- eta istripu-indizeak, arrantzari berez dagozkiolakoan.

• **Istripu larri eta hilgarriei buruzko datu estatistiko batzuk.**



Estado español

Istripu larri eta hilgarrien portzentajeak, istripua eragin duen kausaren arabera. Arrantza-sektorea. 1986.

	Istripu hilgarriak	Istripu larriak
Maila batetik besterako erorketak	70,5	12,5
Maila berean gertatutako erorketak	11,8	12,5
Objektu mugikorren kontrako txokeak	5,9	14,6
Objektuek eragindako harrapaketak	5,9	33,2
Substantzia kaltegarriekiko kontaktuak	5,9	-
Objektu edo lanabesek eragindako kolpeak	-	4,2
Jaurtitako zati edo partikulen kolpeak	-	16,7
Gehiegizko esfortzuak	-	4,2
	-	2,1

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Istripu larri eta hilgarrien portzentajeak, zauriak zein gorputzaletan gertatu diren kontutan harturik. Arrantza-sektorea. 1996.

	Istripu hilgarriak	Istripu larriak
Buru-hezurra	5,9	2,1
Aurpegia (begiak izan ezik)	-	2,1
Begiak	-	6,2
Lepoa	-	2,1
Torax, bizkar eta saihetsa	11,8	4,2
Gerrialdea eta abdomena	-	2,1
Eskuak	-	60,3

Istripuen kausei buruzko datu estatistikoak bat datoz marinelen artean egindako iritzi-inkesta baten emaitzekin.

	Itsasora erortzea	Itsasuntzian erortzea	Eroritako objektuak	Zizadak, kopak, ebaitak	Jaurtitako objektuen kopak	Apurketak	Harrapaketak	Gehiegizko esfortzuak	Konaktu elektrokoak	Erredurak	Beste batzuk
Hilgarria	28,0	3,4	1,7	1,2	0,0	5,9	14,0	0,0	1,7	0,2	0,4
Oso larria	33,4	24,4	7,1	11,2	2,7	14,3	36,5	3,3	9,1	9,8	4,9
Larria	23,4	38,2	19,1	23,0	13,5	24,8	26,5	14,7	7,9	14,6	8,6
Arina	13,7	32,0	54,3	63,1	58,2	49,1	17,9	68,2	38,4	52,7	53,1
Ez da pasatzen	1,0	2,0	17,8	1,5	25,6	5,9	5,1	13,8	42,9	22,7	33,0

Emaitza estatistikoak baloratzera-koan garrantzitsua da zerbait gogoratzea, hots: itsasuntzietako lan-baldintzen ezaugarriak direla medio, lehorrean baja eragingo luketen istripu arinek ez dutela efektu hori izaten itsasoan, eta,

horrenbestez, zauritutako mari-nelak bere lanarekin jarraitzen duela bere lankideen lana ez areagotzeko. Horren ondorioz, erregistratutako istripu-kopurua benetan gertatzen dena baino txikiagoa da.

Segurtasuna, osasuna eta higieena lantokian.



Segurtasuna

Segurtasunak biltzen dituen tekniken xedea lan-istripuak eragin ditzaketen arriskuak ezabatzea da. Arriskua erabat eragozteko ezinezkoa denean, teknika horien helburua istripuetako

ondorioen larritasuna gutxitzea da.

Osasuna

OMEren definizioaren arabera osasuna ez da gaixotasunik ez izatea, ongizate fisiko, psikiko eta sozialeko egoeran bizitzea baizik.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.


Higienea

Higienearen helburua hauxe da: kutsagarrien eraginak kontrolatzen, gutxitzen eta ezabatzen dituzten aurrezaintza-metodoak azertzea, erabiltzea eta inguru-nean aplikatzea.

Oinarrizko ideia horiek lantoki orotan aplikatu behar dira.

Itsasuntziaren ezaugarriak

Azken urteotan aurrerapen nabarmenak egin dira itsasuntziaren segurtasuna eta errentagarritasuna hobetzeko: zundak eta radarrak instalatu dira, potentzia igo da, tankea eta bodegak handitu dira, etab., baina gizakia-lana binomioa prozesu horren bazterrean utzi dute



ia erabat. Zentzu horretan, itsasuntziak oso lantoki berezia dela ikusita, guztiz beharrezkoa da itsasuntziaren ezaugarriei buruzko hausnarketa egitea. Hausnarketa hori itsasuntziaren eraikuntzarekin zerikusia duten guztiek egin beharko lukete, segurtasuna, osasuna eta higiena bermatzeko beharrezkoak diren ideiak kontutan harturik.

Ez dagokio azterlan honi itsasuntziaren ezaugarriak zehatz-mehatz aztertzea, segurtasun, osasun eta higienaren ikuspuntutik. Gure helburua hausnarketa egitera bultzatzea da, proposamen batzuk egitearen bidez.

Denok dakigu zein diren itsasuntzietako puntu arriskutsuak eta zein diren, estatistikak dioenez, marinelen osasuna, segurtasuna edo higiena arriskuan jartzen dituzten lan motak.

Puntu horiek (modu laburrean ikusiko ditugu jarraian) dira arreta eta azterketa sakona eskatzen dutenak, itsasuntziaren proiektua egiterakoan:

Arrantzako maniobreakin zerikusia duten eginkizunak. Itsasora eroritakoen hiru laurdenek eta istripuen bi herenek sarea uretara erriatzean edo jasotzean gertatzen dira.

Makinila, kableak, sokak eta arrasteko sareen ateak lan istripuen berehalako kausa nabarmenak dira.

Tripulazioak jasan behar duen zarata maila arriskutsutzat jo daiteke, bai lan-guneetan eta bai atsedenean.

Argia eta ikusgaitasuna ez dira, maniobra-guneetan, behar bezain egokiak.

Lanaren antolaketa.

Zaila da itsasuntzietan egiten den lanaren antolaketaz hitz egitea, kontutan hartu behar baita arrantza oso heterogeneoa dela eta antolaketa hori faktore ugari baldintzatzen dutela: itsasuntzi eta arrantza motak, ordainketa-sistemak, marearen iraupenak eta arrantzalekuan dagoen eguraldiak.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Hala eta guztiz ere, horri buruz egindako azterlanei begiratuz gero, itsasuntzietako lanean beti errepikatzen diren puntu batzuk aurki ditzakegu.

Lan erritmoa ziklikoa da. Horren eraginez, marinela bata bestea- ren atzean egin behar diren egin- kizun batzuei egoten dira lotuta. Eginkizun horiek luzeagoak dira arrantza hobea denean edo kon- ponketak egin behar direnean; atsedendialdiak, berriz, laburrak izaten dira.

Esfortzu fisikoa etengabea da, kubiertan lan egiten dutenen kasuan batez ere. Horren eragi- nez, arazo fisikoren bat duten pertsonak ezin dute horrelako lanik egin, hori arriskugarria izango litzatekeelako, bai bera- rentzat eta bai bere lankideentzat.

Karga psikikoa gehiegizkoa da, batez ere kapitainarena edo patrioiarena, edo, neurri txikiago batean, kontramaisuarena.

Higienearen ikuspuntutik azpi- marratzekoak dira zaratak sort-

zen dituen arazoak. Karga hori lanaldian zein atsedendian pai- ratu behar izaten dute marinelek, eta are larriagoa da makineta- ko langileen kasuan.

Proposatzen diren ekimenak

• **Prebentzioa.**

Itsasuntziaren proiektua egitera- koan kontutan hartu behar da segurtasun integrala; hori nahi- koa ez denean, berriz, babes- tresna egokiak eskaini behar zaizkie marinelei.

• **Prestakuntza.**


Marinelen lanaren inguruneari buruzko informazioak presta- kuntza-planen zati izan behar du, hala hasierako nola goiko maile- tan. Inguruneari buruzko infor- mazio hori itsasuntziak kontrolat- zeaz arduratzen diren pertsonen ere eman behar zaie, eta, jakina, baita irakasleei ere.

• **Ikerkuntza.**

Marinelek izaten ditzuten istri- puak, erritmoa eta lan-karga osa- sunaren ikuspuntutik aztertu behar dira sistematikoki.

Itsasuntzian gertatzen diren **istripu**
batzuk. "Kausen arbola"

Istripuak eta euren kausak aztertzearen bitartez prebentzio-metodo egokiak aukeratu eta aplikatu ahal izango ditugu.



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Lan istripuek kausa ugari dituzte

Lan istripuak kausa, egoera edo aurretiko gertaera batzuk elkarri lotzen direlako sortzen dira. Horiek guztiak faktore askoren menpe daude.

Elkar-lotze hori biderkaketa gisa gertatzen da, ez batuketa gisa;

modu horretan, faktoreetako bat agertuko ez balitz emaitza nulua izango litzateke, eta, horrenbestez, ez litzateke istripurik gertatuko.

Edozein istripuk kausa natural bat eta azalpen logiko bat izaten ditu.

Lan istripuak aztertzeko erabiltzen den metodologiaren irudi grafikoa.

Arriskuen azterketa

Aldez aurretiko azterketa

Lan baldintzen azterketa.

Lan baldintzen ezaugarriak, honi buruzko datuak jasotzea :

- Langilea.
- Materiala.
- Eginkizuna.
- Ingurunea.

Istripuen osteko azterketa

Istripuaren azterketa klinikoa.

Azterketa epidemiologikoa.

a) Gertatutakoa jasotzea.

Azterlan estatistikoak eta datuen azterketa.

b) Istripuaren dinamika bilatzea.

c) "Kausen arbol" bat egitea, lan tresna gisa erabiltzeko.

Metodoa honako honetan datza: egon daitezkeen arriskuak eta agertzeko duten probabilitatea azterzea.

Nola egiten da "kausen arbola"?

Azken gertaera (istripu-arriskua edo istripua bera) abiapuntutzat harturik, kausen arbola gertaeraren eta alde zuzenaren egoeraren arteko erlazioa bilatuz erakitzen da. Horretarako ondoko galderei erantzun behar zaie:

- 1.- Zergatik? (kausa-efektu erlazioa)
- 2.- Beharrezkoa ote da kausa hori?
- 3.- Nahikoa ote da?

Erantzunak ondoko gisakoak izan daitezke:

Kateaturik: gertaera bakoitzak kausa bakar bat du, beharrezkoa eta nahikoa dena.


Disjuntzioa: kausa berbera duten bi gertaera edo gehiago.

Konjuntzioa: gertaera sor dadin kausa batzuk behar dira.

Adibidea:

Marinel bat aurreko bodegara zihoan arratsalde batean, esku bakoitzean pintura lata bat eramanez. 3. bodegaren paretik pasatzean irrist egin eta erori da; horren eraginez zauritu egin da. Kubiertan olio-arrasto batzuk zeuden, goizean makinila koipeztatu dutenean hor utziak. Marinelak esan duenez, kubiertan argi gutxi zegoenez ez du olio ikusterik izan.

Kausen arbola



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.



Koherentzia egiaztatu:
Zergatik gertatu da istripua?
Kausa bakarra izan ote du?

Adibidea:

Sarea jasotzeko maniobra bat egitean, makinila marinel baten eskularrua harrapatu du, eta, ondorioz, baita eskua ere. Norbaitek gelditu du makinila, "atzera" jotzeko eta eskua askatzeko asmoz, baina maniobra nahastu eta "aurrera" jo du; horren ondorioz zauri larriagoak eragin dizkio besteari.

Istripua aztertzean hauxe ikusi ahal izan zen:

- Eskularruak handiegiak zirela marinel horrentzat.
- Maniobra oker egin zuen marinelak esperientzia gutxi zuela.

Kausen arbola

				Prestakuntza falta.
	Makinila gaizki erabilia.	Esperientzia gutxiko marinela.		Antolaketa falta.
Erorketa.	Zauri larriak			
		Harrapaketa.	Eskularru handiegiak.	Babes-neurri desegokiak.
		Diseinu desegokia.		

Gutxienezko

egiaztapen-zerrenda.

Benetako prebentzioa arriskuak aurretik detektatzen dituen da. Horri deitu diogu, lehengo fitxan, aldeztu aurretiko azterketa.

Nola detektatzen dira arriskuak?

Pertsona bakoitzak egiten dituen operazioei zuzenean begiratzearen bidez: ez lanari soilik, baizik eta baita inguruarekiko loturari ere (makinak, ekipoak, etab.). Begiratze hori (oso baliagarria, zalantzarik gabe) mugatuta egongo da; lehenengo muga begiratzen duenaren trebetasuna izango da: zenbat eta esperientzia eta jakintza handiagoa, orduan eta emaitza hobetoagoak; bigarren muga, berriz, begiek ikus dezaketena da.

Gisa bereko egoeretan ikusita, aztertzearen bidez.

Langileek diotena entzutearen bidez. Euren iritziak eta bizipenak lagungarriak izango dira, begiratzearen bidez antzeman ez diren arriskuei buruz hausnartzeko.

Segurtasun ikuskapenak

Arriskuak detektatzeko gehien erabiltzen diren metodoetako bat segurtasun ikuskapena da. "Ikuskapena" hitza entzutean zigorra etortzen zaigu gogora, eta desatsegina egiten zaigu; autobalorazioaren ikuspuntutik pentsatuz gero, haatik, zera ikusiko dugu: oso tresna erabilgarria izan daitekeela osasuna eta segurtasuna gure lantokian.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

hobetzeko. Kontzienteki aplikatuko bagenu gutxienezko kontrol bat izango genuke, hala instalazio, makina edo ekipoei dagokionez nola pertsonen edo inguru-neko jarduerari dagokionez.

Arrantzaleen artean oso hedatuta dagoen ideia baten arabera, badirudi osasuna eta segurtasuna itsasuntziko arduradunaren kontu hutsak direla. Ardura ez banatzeko joera horren eraginez, gomendio askori ez zaio jaramonik egiten, eta gomendioa egin duen pertsona aurrean dagoenean soilik betetzen dira.

Marinel batzuek gaitzetsi egiten dituzte segurtasun eta osasunari buruzko gomendioak, agintarien mustur-sartzeak direlakoan, edo, bestela, profesionaltasun faltatzat jotzen dituzte: "beti egin da horrela".


Autobalorazioa emankorra izan dadin beharrezkoa da trebakuntza, ez ikuspuntu teknikitik bakarrik, baizik eta baita ikuspuntu humanotik ere. Autobalorazioan langile guztiek parte hartu behar

dute, norik bere ikuspuntuak eta bizipenak azalduz. Horren helburua segurtasunaz mentalizatzea da: segurtasuna eskubidetzat jo behar dugu, ez eginbehartzat.

Irteerako egiaztapen-zerrenda ("check list")

Ondo egiteko gogo bizia izan arren ikuskapena ezin egin daiteke modu enpirikoan, hau da, "begiratutxo bat ematen"; aitzitik, beharrezkoa da behar bezainbeste denbora ematea eta metodo egokia erabiltzea.

Metodorik egokiena egiaztapen-zerrenda edo *check list*-a da. Zerrenda horretan jasota daude gerta daitezkeen arriskuak, eta, horri esker, gauzak inprobisatzea edo ahaztea eragozten da. Egiaztapen-zerrendaren emaitzen analisiak hausnartzeko eta aldatetako egiteko beharraz konturatzeko aukera ematen digu; aldateta horiek ohiturekin izan dezakete zerikusia, edo, beste batzuetan, antolaketarekin; trebakuntza falta dagoela erakuts die-



zaguke, edo arrisku handiko makinaren bat aldatu edo ordezkatu behar dela, edo, agian, konponbide hau edo bestea egin behar dela erakutsiko digu.

Egiaztapen-zerrenda egiteko une egoki bat itsasuntzia itsasoratzeko prestatzen ari garenekoa da. Une horretan oraindik ezaba daitezke arrisku larriak, babes-ekipoak osatu, lan-antolaketa hobetu, etab.

Helburu horretara zuzendurik egiaztapen-zerrenda orokor bat eskaintzen dizuegu, adibide gisa; zerrenda hori oinarritzat har daiteke, gero lan bakoitzaren arabera egokitzeko.

Ariketa gisa balio dezake, eta, aldi berean, erabilgarria izan daiteke segurtasuna ohitura bihurtu behar dugula konturatzeko.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Irteerako egiaztapen-zerrenda
(Gutxienezko "Check list")

Behar den bezala al dago? Bai Ez Hobetu behar da

- | | |
|--------------------------------------|--|
| 1.- Nahiokoa da tripulazioa? | 9.- Sarbideak eta ibiltzeko bideak |
| 2.- Azterketa medikoa. | Isasuntzira sartzeko bidea |
| 3.- Dokumentazioa, lizentziak, etab. | Eskalak eta eskaierak |
| 4.- Telefonía. | Labainkadak eragozteko zorua |
| 5.- Botikina eta osasun-gida. | Seinalizazioa |
| 6.- Suteei aurre egiteko tresnak: | Sokak eta arrantzarako |
| Suitzalgailuak | tresnak ordenaturik egotea |
| Baldeak | 10.- Arrisku elektrikoak |
| Suteen kontrako ponpak | Isolamenduak, etengailuak, |
| Ura ateratzeko ponpak | larakoak |
| Mangerak | Koadroak |
| 7.- Salbamendurako tresnak | Tentsioen seinalizazioa |
| Txalupak eta baltsak | Lurrerako hartuneak |
| Aroak eta txalekoak | 11.- Sukaldea |
| Alarma sistemak | Edateko ura |
| 8.- Babes indibidualak | Konexio elektrikoak |
| Oinetakoak | Butano bonbonak |
| Eskularruak | Ordena eta garbitasuna |
| Segurtasun gerrikoak | 12.- Tripulazioak erabiltzen dituen lekuak |
| Ur arropa | Komunak, dutxak |
| Amasketa autonomorako tresnak | Logelak |
| Betaurrekoak | Janaria |
| Kaskoak | Ordena eta garbitasuna |

Egiaztapen-zerrenda honetan, betiko "bai"/"ez" erantzunei beste bat erantsi zaie: "hobetu behar da". Izan ere, zenbait kasutan itsasuntzian badago eskatzen den sistema edo babesa, baina behar bezain ego-
kia izan gabe, hots: dagoena hobetu behar da.

ERANTZUNA ONDOAN JARRI.

Arrasteko arrantzarako tresnen prestakuntza.

Definizioa

Arrasteko arrantzarako tresnek honako parte hauek dituzte:

- Sarea eta sarearen zakua
- Sokak (sareen sokak, burdinezko kableak eta arrasteko kablea)
- Kaloiak
- Diaboloak
- Maestrak
- Banatzaileak
- Bilurrak
- Arrasteko sareen atak

• Sarea.

Sareak bi parte ditu:

- Goiko partea; ur gainean dago eta atal hauek ditu: goiko bandak, goiko aldea, manga, sarearen zakua eta goiko soka.

- Beheko partea; ur azpian dago eta atal hauek ditu: burloia, beheko bandak, salbelaldea eta sarearen zakua.

• Sokak.

Sarean erabiltzen diren sokak honako hauek dira:

- Lokarriak: altzairuzko eta neurri bereko bi kable dira; goikoa goiko sokarekin lotzen da, eta behekoa burloiarekin. Sarea gehiago zabaltzeko balio dute.

- Burdinezko kableak: Kaloietatik arrasteko sareen ateraino doazen sokak dira. Euren luzera alda daiteke, arrain mota, itsas-sakonera, itsasuntzi mota, etab.en araberak.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

- Arrasteko kableak: itsasuntzian dauden kablerik sendoenak dira; arrasteko sareen ateen ostean doaz, itsasuntziaren norabidean; euren zabaldua desberdina izan daiteke, itsasuntziaren eta makinaren tamaina, arrain mota, itsasakoneraren arabera.

• Kaloiak.

Batzuetan, elkarturiko burdinezko esfera edo triangeluz eginda daude; beste batzuetan, berriz, goiko partean dauden barrak


(zurezkoak edo burdinezkoak) dira soilik. Euren tamaina alda daiteke; sarearen bandetako puntan lotzen dira.

• Diaboloak.

Burdinezkoak edo kautxuzkoak dira, eta euren tamaina itsasakoneraren arabera aldatzen da. Sareko burloia osatzeko balio dute.

• Maestrak.

Sarea itsas gainean mantentzeko eta goiko partea hondotik jasot-



* zeko balio dute. Hasieran beirazkoak izaten ziren, gero aluminiozkoak, eta, azken aldi honetan, material sintetikoak (erresistentzia handia dute, eta, hortaz, ur-presio handia eraman dezakete).

• Banatzaileak.

Burdinezko piezak dira, arrabol formakoak; esferak elkarrengandik bereizteko erabiltzen dira.

• Katea txikiko tartekatzaileak.

Tamaina desberdina (diaboloen arabera) duten burdinezko kateak dira; banatzaileak berunezko sokarekin lotzeko balio dute.

• Bilurrak.

Ilargi erdiko forma dute eta burdinezkoak dira; euren lodiera eta tamaina desberdina izan daitezke; itsasuntziko lan askotarako erabiltzen dira: sokak lotzen dituzte elkarrekin, atekin, etab.

• Arrasteko sareen atekak.

Arrasteko sareen atekak arrantzarako tresnen sarea modu horizontalean irekitzeko erabiltzen

dira, eta burdinezkoak zein zurezkoak izan daitezke; gainera, formari dagokionez honelakoak izan daitezke:

- Obalatuak
- Zulodunak
- Angeluzuzenak
- Beteak.

Arriskuak

- Itsasuntzian material astunak maneiatzen direnean.

- Sokak eta josturak prestatzen direnean.

- Arrasteko sareen atekak itsasuntzira igotzen direnean.

- Makinilarekin lan egitean.

Prebentzioa

- Kontu handiagok ibili material astuna itsasuntzian erabiltzean; erabil itzazu beti kaskoa eta eskularruak.

- Sokak konpontzean eta josturak egitean erabil itzazu beti kaskoa, eskularruak eta kaskoa.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

- Arrasteko sareen ateak itsasuntzira igotzean, arropa egokiak janzteaz gain, kontuz ibili txigrea lotzean eta askatzean; kontu handia izan itsasuntziaren mugimenduarekin edo makinilan dagoen marinela izan ditzakeen hutsegiteekin (ematen dituen aginduekin: sarea jasotzeko, sokak askatzeko, etab.).

- Tripulazioa saiatuko da makinilan dagoen marinela ikusmena ez oztopatzen; modu horretan, maniobrek ez dute istripurik eragingo.

Inguraketako arrantzatresnen prestakuntza

• Definizioa.

Inguraketa tresnek honako atal hauek dituzte:

- Inguru sarea.
- Sokak (sareen sokak, garbitxutakoa,...)
- Anilak (garbitxutakorako)
- Esparbela, salabardoa.
- Txintxorroa.
- Txardangoa.
- Makinila.

Inguru sarea.

Pieza bakarra da, angeluzuzena.

Sokak.

(Aurreko eta azteko sareen sokak)

Sarea -erriatu eta gero- lotzeko eta zirkuluan ixteko erabiltzen dira.

Garbitxutakoa.

Soka luzea da: aniletatik pasatu eta sarearen beheko partea ixten du, inguraketa eginez.

Anilak.

Metalezko aroak dira eta sarearen beheko partean kokaturik daude; elkarren artean 10 metroko tartea dute, gutxi gora-behera.

Esparbelak.

Tamaina desberdineko sare-zaku bana duten aroak dira. Euskarri batez lotzen dira, eta zakua egin eta gero arraina sartzeko erabiltzen dira (itsasuntziaren barnean).

Txintxorroak.

Txalupa laguntzaileak dira; argiak dituzte arrain-sardak erakartzeko eta elkartzeko.

Txardangoak.

Makilak dira. Sokez baliatuz irekita eusten diote sarearen zakuari, esparbelaren laguntzaz arraina sartzeko eta itsasuntzira igotzeko.

Makinilak.


Makinilek sareko muturretako soketatik tiratzen dute, inguraketa egiteko eta sarearen zakua ixteko; horrez gain, arraina deskargatzeko ère erabiltzen dira.

• Arriskua.

- Sarea uretara erriatzean.
- Anilak itsasuntzitik ziztu bizian ateratzen direnean.
- Esparbela zakuan sartu eta arrainarekin igotzen denean.
- Txintxorroa itsasoratzean eta bertara sartzean.
- Txintxorroa itsasuntzitik urrun dagoenean.
- Alde batetik bestera joatean txintxorroa atoian doanean.

- Txardangoak pisu gehiegi hartzen duenean.

- Makinila arinegi doanean eta langileak eskarmentu gutxi duenean.



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

• Prebentzioa.

- Sarea erriatzean saretik urrun geratu.
- Aniletatik urrun geratu.
- Esparbela ez gehiegi kargatzea, eguraldi txarra dagoenean zaila izaten baita kontrolatzea.
- Txintxorrorra segurtasun handiz sartu behar da.
- Ikusgai egon txintxorra itsasuntzitik urrunduta dagoenean.
- Txintxorroa atoian eramaten denean ez joan txintxorroan sartuta; igo itsasuntzira, nahiz eta denbora laburrerako izan.
- Ez egon txardangoaren azpian arraina igotzeko lanak egiten direnean.
- Eskularruak erabili sarearen sokak jasotzean, eta kontu handiz jaso.

Atunen arrantza amuski bizia erabiliz

• Definizioa.

Atunak amuski biaz harrapatzeko erabiltzen diren tresnek honako parte hauek dituzte:

- Kanabera, pitxia eta amua.
- Gakoa.
- Amuski bizia.

Gakoa.

Arraina itsasuntzira igotzeko erabiltzen da, arrainak pisu handia duenean.

• Arriskua.

- Kanaberaz arrantza egitean, arraina amutik askatzen baldin bada, kanabera aurpegi edo gorputz aldera etorriko da.
- Gakoa gaizki erabiltzeak zauri larriak eragin ditzake gorputzean, punta sartuz edo kolpatuz.*

• Prebentzioa.

- Kontuz ibili lanean eta begiratu ea arraina amutik askatzen den, hori gertatzen denean amua aurpegirantz etortzen baita zuzenean.

- Gakoa esperientzia handiko jendeak erabili behar du; gainera, gakoa erabili baino lehen garrantzitsua da inguruko langileak non dauden begiratzea.

- Ariketa fisikoak egitea tarteka; izan ere, arrain-sardak aurkitzen direnean oso erritmo bizian lan egiten da, eta horrek kalteak eragin ditzake bizkarrean, gerrian, besoetan, etab.

Tretza edo pintxoko arrantza: Tresnen prestakuntza

• Definizioa.

Tretza-arrantzako tresnek honako elementu hauek dituzte:

- Amuak.
- Harriak.
- Boloak.
- Buiak.
- Makinilak.

Amuak.

Arrantzarako tresna osoa amuz osatuta dago.

Harriak.

Pisu gisa erabiltzen dira, arrantzarako tresna hondoraino irits dadin.

Boloak.

Arrantzarako tresna hondoa ez den beste edozein lekutan kokatzeko erabiltzen dira.

Buxak (Mundilak).

Itsasoan dauden arrantza-tresnak norenak diren adierazteko erabiltzen dira.

Makinilak.

Arrantzarako tresnak eta sokak jasotzeko erabiltzen dira.

• Arriskua.

- Arrantzarako tresnak erriatzean eta jasotzean kontuz ibili behar da amu, harri, buxa eta boloekin, itsasuntziara jasotzean aurpegian edo gorputzaren beste edozein ataletan jo dezakete eta.

- Makinilarekin ere kontuz ibili beharra dago; bera da amuak eta

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

sokak biltzen dituen, eta, hortaz, begietara edo gorputzaren beste atalen batera jaurti ditzake.

• Prebentzioa.

- Kontu handiz ibili arrantzarako tresnak erriatzean, zeren harriek eta boleak abiadura handia hartzen baitute.

- Arrantzarako tresnak jasotzean eskularruak erabili behar dira; kontuz ibili behar da, amuek salto egin eta gorputza jo baitezakete.

- Oro har, amuekin lan egiten denez eta hauek leku guztietan daudenez, kontuz ibili behar da amuen puntekin ez zauritzeko.



Arrantzarako tresnak **erriatzeko**

eta **jasotzeko maniobra.**

Argiak

- Itsasuntziaren barneko argiak arrantza-lanak egiteko behar direnak dira.

- Kanpoaldean, berriz, arrasteko argiak nazioarteko mailan erabiltzen dira eta derrigorrezkoa dira arrantzarako tresnekin lan egiten denean.

• Arriskuak.

- Zauritzea edo hezurak apurtzea.
- Maniobrak gaizki interpretatzea.
- Arrantzako materiala apurtzea.
- Abordajeak.

• Prebentzioa.

- Barneko argiak kontuz eta modu egokian jarri behar dira, arriskua dagoen lekuetan, eta ahal denean fluoreszenteak izango dira. Ez dute lanean ari direnean ikusmena oztopatu behar. Kanpotik ez dira ikusi behar, lanean ari diren beste itsasuntzietakoei ez molestatzeko.

- Nazioarteko arauen arabera, arrantzako argiek egiten ari den maniobra adierazi beharko dute une bakoitzean: sarea erriatzea; arrastea; sarea jasotzea; makina, maniobratu ezinik; arrantzarako tresnak urpean. Modu horretan, gainerako itsasuntziek jakingo dute zer den gertatzen ari dena,

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

eta, horrenbestez, arriskua daogonean ez dira hurbilduko.

Barneko komunikazioa

Itsasuntzian beharrezkoa da interkomunikazioarako tresna bat edukitzea; horren xedea aginduak jasotzea eta informazioak bidaltzea da, zubitik itsasuntziko leku guztietara, arrisku gehien duten lekuetara batik bat.



• Arriskuak.

- Agindu garrantzitsu eta premiazkoak gaizki interpretatzea.

• Prebentzioa.

- Gomendatzen da itsasuntzian bi interkomunikazio-sistema muntatzea, horietako bat apurtzen denean bestea erabili ahal izateko.

- Edozein maniobra arriskutsu egin baino lehen probak egin behar dira.

- Sistema, aldian-aldian kontrolatu behar da, akatsik ote duen ikusteko.

Arrantzako materialaren ezaugarriak

- Sokek ez dute gehiegizko tentsiorik edo urradura handirik jasan behar.

- Sokak dagozkien lanerako soilik erabiliko dira.

- Sokak sarritan eta zehaztasunez aztertu beharko dira, materialaren errendimenduari kalte egin ahal dion arazorik ote dagoen ikusteko.

→ Arrantzarako tresnak
erriartzeko eta jasotzeko maniobra.

- Zuakeraren zabalera eta erabili-ko diren soken zabalera berdinak izango dira.

- Sokak, zuntz sintetikoak batik bat, ez dira denbora luzez eguzkitan egongo.

- Arrantza aldaparen gainetik, 1,50 metrotara (gutxi gora-behera), soka bat jarriko da itsasora erortzeko arriskua eragozteko (erortzear dagoen marinela sokari heldu ahal dio).

Tripulazioa

- Marinela arrasteko soketatik urrun egongo dira itsasuntzian, maniobra egiten direnean batik bat.

- Maniobra egiten diren lekuan egon daitezkeen bakarrak maniobra horien arduradunak dira.

- Sarearen zakuak jasotzeko maniobra egitean tripulazioak urrun egon beharko du.

- Tripulaziokoek urrun egon beharko dute arrasteko sareen ateak igotzen diren lekutik.

• Arriskuak.

Honako hauek dira tripulazioak izan ditzakeen arriskuak:

- Soka buelta bat txigrearen buruan traba daiteke eta istripu bat eragin.

- Olatuen kolpeak.

- Txigrea lotzean edo askatzean ate batek jo dezake marinelen bat.

- Sarearen zakuak marinelen bat jo dezake, txigreren buruan soka buelta bat trabatu delako.

• Prebentzioa.

- Tripulazioak eskularruak, arropa egokiak, kaskoak edo betaurrekoak jantzi beharko ditu lan egiteko.

- Tripulazioak ez du arrasteko kableen gainetik pasatu behar,

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

batez ere arrantzarako tresnak jasotzean edo urperatzean.

- Zona arriskutsuetan marinelek ez dute makinilaren aurrean egon behar: makinilan dabilenaren ikusmena oztopa dezakete, eta, horren ondorioz, istripuak eragin.

- Salbamendurako buxek eta segurtasun sistemek egoera onean egon beharko dute, esku-
ra eta leku egokienetan.

Itsas-hondoak

Harrizko hondoek matxurak eragin ditzakete arrantzarako tresnetan.

• Arriskuak.

Arriskuak honela sor daitezke:

- Itsasuntziaren mugimenduen edo marinelen desorekaren eraginez.

- Esfortzu berezi bat egitearen ondorioz; adibidez: soka sare-

aren alde batean apurtuko balitz, alde batetik bakarrik jaso beharko litzateke orduan.

- Gehiegizko pisuak esfortzu handiagoa eskatzen badio sareari. Horren arrazoia hauetako bat izan daiteke: lokatza, basa, harriak, beste arrantzarako tresna bat saretik hurbil, etab.

- Harrizko hondoan arrantzarako tresnak duen tentsioaren eraginez soka bat apurtzen denean.

• Prebentzioa.

- Lanpostuetan hor egon behar duten pertsonak bakarrik egongo dira, ez beste inor.

- Edozein pisu berezi jasotzeko soka egokiak erabili beharko dira.

- Arropa egokiak erabili.

- Ikusgaitasun egokia lanpostu guztietan eta egin beharreko lan guztietan.

→ Arrantzarako tresnak
erriatzeko eta jasotzeko maniobra.

Sarea uretara erriatzeko maniobra arrastea atzean duten itsasuntzietan.

Maniobraren
deskripzioa

Arriskuak

Prebentzioa

-Zakua eta sarea
jasotzeko.

-Sarea helizean tra-
batzea.

-Makina beti
aurrera.

-Amarradurak eta
kaloiak jasotzea.

-Sarea urpean tra-
batzea.

-Sarea zabalik eta trabatu
gabe dagoela agiazatzea.

-Burdinezko kable-
ak jasotzea.

-Ateak oztopatzea.

-Ateak astiro eta
zabalik igotzea.

-Arrasteko kablea
jasotzea.

-Matxurrak sarean,
sarea abiadura han-
dian erriatzen denean.

-Sokak segurtasu-
nez lotzea beti.


-Arrastea, 3 korapi-
loko abiaduran.

-Abordajea, maniobra
adierazten duen argi-
rik ez dagoelako.

-Itsasuntziaren
abiadura murriztea.

-Argiak erabiltzea.

-Egunez, seinale
kodearen banderak
erabiltzea.



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Sarea jasotzea arrastea atzean duten itsasuntzietan

Maniobraren deskripzioa	Arriskuak	Prebentzioa
-Itsasuntziaren abiadura murriztea.	-Arrasteko sareen ateak txikotez lotzea.	-Ateak astiro jasotzea, 25°, itsasuntzira iristean.
-Arrasteko kablea jasotzea.	-Sarea helizean.	-Ateak astiro gelditzea.
-Burdinezko kableak jasotzea.	-Abordajea.	-Arropa egokia erabiltzea lanean.
-Kaloiak eta amaradurak jasotzea.		-Maniobrak argi eta garbi adieraztea.
-Sarea eta amaradurak jasotzea.		-Egiten diren maniobrak banderekin (egunez) edo argiekin (gauetz) adieraztea.
-Sarearen zakua jasotzea.		



→ Arrantzarako tresnak
erriatzeko eta jasotzeko maniobra.

Sarea uretara erriatzeko maniobra hegaleko itsasuntzi arruntetan		
Maniobraren deskripzioa	Arriskuak	Prebentzioa
-Itsasuntzia zeharkatzea.	-Sarea helizean tratatzen da.	-Ez erriatu sarea aske eta argi ez badago.
-Zakua eta sarea kanpora.	-Sarea ez da argi ateratzen.	-Burdinezko kableak eta lokarriak.
-Kaloiak eta lokarriak makina aurrera doalarik.	-Ateak tratatzen dira sarea erriatzean.	-Ateak astiro askatu.
-Itsasuntziaren errotazio geldoa.	-Buelta arrantzarako tresnan.	-Eguraldi txarra dagoenean kablea astiro askatu.
-Arrasteko sareen ateak prestatzea.	-Sarea ez da ongi finkatzen itsasondoan.	-Abiadura murriztu.
-Itsasuntzia nahi den norabidean.	-Sarea apurtzen da erriatzen dutenean.	-Itsasuntzia zabaldu pasteka maniobratzeko.
-Motorea indar osoan arrasteko kableak askatzeko.	-Istripuak, agindu hauek ez betetzeagatik.	-Sokak beti ongi seguratu.
-Abiadura murriztea.	-Abarloamendua.	-Kontuz jasotzean, gakoa munoian ez tratatzeko.
-Sokak besotik hartzea eta beroriek pastekan jartzea, abiadura motelean.		-Sarea hondoan ondo finkatzen dela egiaztatuz. Egunez banderak eta gaeuz argiak erabili, gainerako itsasuntziak ez nahasteko.
-Arrastea hiru korapiloko abiaduran.		-Arropa egokiak erabili maniobretan.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Maniobraren deskripzioa	Arriskuak	Prebentzioa
-Itsasuntziaren abiadura murriztea.	-Pastetako sokak arinegi jaurtitzea.	-Beti babes-materialarekin lan egitea.
-Arrasteko kableak itsasuntzia zabaldu eta gero jaurtitzea.	-Maniobrak arreta barik egitea.	-Pastekan kolpe handiak ez ematea.
-Kablea jasotzea.	-Ateak gaizki ipintzea.	-Pastekak heltzen direla abisatu garabi-besoei.
-Itsasuntzia biratzea.	-Pisu handiegiak arrantzarako tresnan.	-Burdinezko kableak eta ateak haize eta itsasoari zeharka jarrita jaso.
-Burdinezko kableak jasotzea.	-Kaloiak erortzea, estroboetan gaizki lotuta daudelako.	-Zaku astuna makinilaren munoari buelta batzuk emanez jasotzea.
-Kaloiak jasotzea.	-Istripuak arrantzarako tresnekin.	-Maniobra arriskutsuetan, kontuz enbragatu arrantzarako makinila.
-Sarea jasotzea.	-Istripuak, arrain kopuru handiak harrapatzen direnean.	-Lanean ez daudenak leku arriskuetatik urrundu.
-Zakua kontuz sartzea karga handia goa dakarreanean.	-Istripuak: lokatz, basa, gehiegizko pisu eta abarreatatik.	-Langileek ez dute zakua- ren azpian egon behar.
	-Istripuak, kaskoa ez erabiltzearen ondorioz.	-Kontuz: zakua hustean. Arrain arriskutsuak ekar ditza- ke eta langileak zauritu.
	-Abarloamendua.	-Banderak (egunez) edo argiak (gauez) erabili egi- ten ari diren maniobrak edierazteko.

Arraina prestatzeko lanak
karga eta deskarga.

Arraina maneiatzeko lanak arraina saretik ateratzen denetik lehorrean deskargatzen den arte irauten du.



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Arrainaren prestaketa kontsumo motaren arabera izango da: sailkatu, tripak kendu eta garbitu, gazitu (gatzunetan jarri), fileteak egin, buruak kendu, izoztu, etab; nolana ere -laburbilduz-, operazio horiek ondokoetan sailka ditzakegu:

- Sailkatzea eta/edo aukeratzea.
- Prozesatzea.
- Ontziratzea.
- Estiba eta deskarga.

Sailkapena eta/edo aukeraketa

Operazio hori arrantza mota guztietan egiten da, eskuz egindako arrantzatik arrantza industrialera.

Lan hori honetan datza: harrapatutako arrainak espezieen arabera bereiztea eta tamaina eta kalitatearen arabera aukeratzea.

Arrisku normalenetako bat puntak dituzten edo agresiboak diren espezieek eragindako zauriak dira; horregatik, lan hori eskularruz egin behar da.

Prozesaketa

Arraina prozesatzeko sistemak asko dira, harrapatutako espezieak eta

kontsumo motak ere ugari izan daitezkeelako. Dena den, bi talde nagusi aipa ditzakegu: eskuko prozesaketa eta prozesaketa mekanikoa.

Lehen taldean, arrainak "fresko" jatekoak direnean, prozesaketako lanak gutxiago dira: garbitzea eta, zenbait kasutan, izotz birrinduan jartzea.

Kasu horretan, arrisku nagusia erortzea da, bai hondakinen ondorioz kubiarta eta bodega labainkor daudelako eta bai izotzaren gainean ibili beharra dagoelako bodegan. Horregatik, oinetako egokiak erabili behar dira, adibidez: labaintzearen kontrako zolak dituzten oinetakoak.

Arraina gazitzeko denean, burua eta tripak kendu behar zaizkio, gero garbitu eta gazitzeko.

Operazio horren arriskuak: eskuak aitzotz zauritzea. Hori saihesteko eskularru egokiak erabili behar dira lanean.

Bigarren taldea, prozesaketa mekanikoa, alturako edo altura handiko itsasuntzi frigorifikoek edo faktoriek gauzatzen dute.

Prozesaketa mota horren arrisku nagusiak hauek dira: ebakiek eragindako zauriak eta esku edo atzamarren anputazio traumatikoak.

Eskuetako zauriak prebenitzeko eskularruak erabili behar dira. Anputazioei dagokienez, eskuko zerra zirkularrak babesik gabe erabiltzeagatik sortzen ziren; gaur egun, hainbeste kalte egin ondoren, badirudi sistema hori desagertzen ari dela.

Ontziraketa.

Betiko ontziraketa zurezko kutxetan egin da, eta gaur egun ere oraindik egiten da horrela. Kutxen materiala lixatu gabeko pinuzko zura izaten da; lotuneak iltzez edo metalezko grapez eginak izaten dira. Kutxa horien pisua bikoitza izaten da bustita daudenean.

Azken urteotan plastikozko kutxak erabiltzeari ekin zaio, zurezkoen orde. Plastikozko kutxak antzeko neurriak dituzte, baina beti pisu berbera izaten dute, eta, gainera, errazago garbitu eta maneiatzen dira. Izoztutako arrainari dagokionez,

normalena plastikozko poltsak edo kartoizko kutxak erabiltzea da.

Egia da ontziraketak arrisku gutxi eragiten dituela; hala eta guztiz ere, egurrezko kutxen kasuan batik bat, ezpala eta iltzek zauriak egin ditzakete eskuetan.

Estiba

Estiba itsasuntziko kubiertan egiten denean -egun bakarreko arrantzan geratu ohi den bezala-, arrisku bakarra kutxak maneiatzearen ondorioz sortzen da: transitoko alde batean pilatzen direnean lana oztopatzen dute.

Estiba itsasuntzi txikietako bodegan egiten denean, berriz, erortzeko arriskua sortzen da; izan ere, bodegako sarbidea zaila da berez, eta are zailagoa arrainez beteriko kutxekin sartu behar denean.

Itsasuntzi frigorifikoetako bodegatan arreta handiz kontrolatu behar da izozteko arriskua, bodega hauekiko tenperatura -25/-30 gradukoa izaten baita. Hotzetik babesten duen arropa erabili behar da, eta bodegan denbora laburrez egon.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Deskarga

Harrapatutako arrainaren deskarga modu desberdinetan egiten da; ohi-koena tresna mekanikoekin egitea da, baina baxurako arrantzan eskuz egin ohi da.

Eskuko deskargaren arrisku nagusia karga gaizki erabiltzearen ondorioz sortzen dena da. Karga bat jasotzeko teknika, kirol hori egiten duten atletena da.

1. Hankak 50. zentimetro ireki.
2. Belaunak makurtuz gorputza jaitsi.
3. Karga jaso, hankak luzatuz eta bizkarra makurtu gabe.
4. Gorputza zuzen jarritakoan karga gehiago jaso behar baldin bada, besoak tolestuz egin behar da operazio hori (hanken laguntzarekin, behar izanez gero).

Aipatutako lan guztietan bada erre-pikatzen den arrisku bat, eskuak libre izateko marinelak izan behar duen jarreratik eratoritzen dena; izan ere, ezin ditu besoak oreka mantentzeko erabili, eta, hortaz, eskuen laguntza behar du.

Arraina aukeratzeko lanetan aurretik makurtuta egon behar du marinelak, hankak irekita edo apur bat makurtuta, edo, bestela, aurretik makurtuta pelbisa puntu finko batean bermatuta izanik. Jarrera hori harrapatutako arrain-kopuruaren arabera mantendu beharko du.

Jarrerak aztertzearen bidez ikus daitekeenez, arrainak prozesatzean marinelak izaten dituen jarrerak artikulazio lunbar-sakroa mugitzen dute etengabe. Horrek, pisuen garraioak eta lan-plataformaren mugimenduak mikrotraumatismoak eragiten dituzte, eta mikrotraumatismo horiek kalte egin diezaiekete, epe luzera, marinelaren artikulazioei.

Makinetan egiten diren lanak.

Makinetako tripulanteek industrian egon daitezkeen arrisku guztiak dituzte: elektrikoak, makinen erabileratik sortzen direnak, zarata, kutsagarri kimikoen erabilera, presio-ontziak, estres tremikoa, etab. Baina lantokia itsasuntzia izateak are larriago bihurtzen ditu egoera horiek.

Inguruneari lotutako arriskuak

• Zarata.

Makina-geletako zaratak arrisku nabarmena sortzen du langileen osasunerako. Arrisku hori honela sailka dezakegu:

Zaratak eragindako trauma.

- Entzuteko ahalmen osoa/zati bat aldi baterako/betirako galtzea.

Organismoan dituen eraginak

- Larruazalaren erresistentzia murrizten da,

- Urduritasuna areagotzen da,



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

- Erritmo kardiobaskularra arintzen da denbora batez,
- Sodio-atxikipen handiak gertatzen dira,
- Muskuluen tonizitatea handitzen da,
- Jarduera gastrikoa murrizten da.

Prebentzioa

- Zarata handia ateratzen duten ekipoaak aldatzea.
- Zarata zurgatzen duten manparak instalatzea.
- Zarata pertsonengandik urruntzea (kontrol-kabina isolatuak instalatu makinetan).
- Mekaniko, koipeztatzaile eta gisa bereko langileek babes-ekipo indibidualak (kaskoa, tapoiak, etab.) erabil ditzakete.
- Lanean hasten den langileari azterketa audiometrikoa egitea eta gero urtero errepikatzea.

• Dardarak.

Organismoan dituzten eraginak

- Arretaz lan egiteko ahalmena murrizten dute.
- Estimuloei berandu erantzuten zaie.

- Nekea.
- Estres psikikoa.

Prebentzioa

- Masak orekatzea.
- Motorea alineatzea.
- Makinaren dardara eragiten duten piezak modu egokian zaintzea.
- Masen zurruntasuna eta kantitatea aldatzea.
- Zurgatzaile elastikoak jartzea.

Aireztapena

Makinetako kameretan beharrezkoa da aireztapen egokia izatea; erauzgailu eta haizagailuak behar dira, airea berriztatuzeko, ahalik eta arinen, makinako puntu guztietan.

Argikuntza

Makinako kamerek argikuntza nahikoa izan behar dute. Argiak leku egokietan jarri behar dira, langileak ez itsutzeko edo itzalguneak ez sortzeko. Argi eramangarriak pieza mugikorretatik urrundu eta behar den moduan lotu behar dira.

Makina edo lanabesak erabiltzean sortzen diren arriskuak

Makinak, definizioaren arabera, energi transformazioa egiten duten tresnak dira; transformazio hori termikoa, elektrikoa, mekanikoa, etab. izan daiteke.

Arrisku nagusiak mugimendu mekanikoak jasaten dituzten piezetan sortzen dira: a) mugimendu birakariak, alternatiboak, oszilakorrak, etab.; b) lan materialaren mugimenduak; c) makinako elementuak jaurtitzea: lubrifikatzaileak, erregaiak, txirbilak, etab.

• Prebentzioa.

- Kontaktua eragozten duten babesgailuak.
- Makina urrunetik gelditzea ahalbidetzen duten gailuak.
- Babes pertsonaleko ekipoa.
- Arauak seinalatzea eta betetzea.

Lanabes eramangarriak (leku batetik bestera eramán daitezkeenak)

Mugitzeko erabiltzen duten energiaren arabera ondoko eran sailkatu ditugu:

- Elektrizitatez mugitzen direnak.
- Aire konprimatuz mugitzen direnak.
- Erregai likidoz mugitzen direnak.
- Fluido oliohidraulikoz mugitzen direnak.

Arrisku nagusiak honako hauek dira:

- Elektrikoak (gai honi buruz badago fitxa berezi bat);
- Gezterak partikula abrasiboak urratu eta jaurti ditzake; hori saihesteko, geztera egoki bat aukeratu behar da, eta geztera horrek bere abiadura jiratu behar du, ongi doitua eta behar den moduan orekatua;
- Beste arrisku bat lotuneak apurtzea eta aire-ihesak gertatzea da; horren ondorioz lesioak

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

eta kolpeak eragin daitezke. Bukatzeko, sute arriskuak aipatu behar dira; beroriek txinparten eraginez sortzen dira.

Prebentzioa

Prebentzioa gauzatzeko beharrezkoa da mangerak, bridak, junturak, etab. behar den bezala mantentzea. Ondoko babes-neurriak erabiliko dira: segurtasun-betaurrekoak, eskularruak, dardarak moteltzeko gailuak, belarrietako tapoiak, hauts-irazgailuak, etab.

• Esku lanabesak.

Kontutan hartu behar dira mantentimendurako arau orokorrak eta segurtasun neurriak.

Arrantza-itsasuntzietan gehien agertzen diren arriskuak honako hauek dira:

- Transportatzen diren gauzak erortzea.
- Lanean dihardutenak erortzea.
- Zuzeneko kolpeak.
- Gorputz-atalak harrapatzea.
- Mugitzeko erabiltzen den energiari berez dagozkionak.



Lan **elektrikoak**

eta

soldadura.

Lan elektrikoak

Organismoaren eta korronte elektrikoaren arteko kontaktuak ondoko ondorioak izan ditzake: detekzio-sentsazioak, muskuluen kontrola galtzea, zartada gogorrak, bihotzaren eta arnasketaren erritmoa aldatzea, erredurak eta heriotza.

• Korronte elektrikoarekin gerta daitezkeen kontaktu motak.

Zuzenak:

Korronte elektrikoa daramaten parteekin.

Prebentzioa

- Instalazioaren parte aktiboetatik urruntzea.
- Oztopoak jartzea parte aktiboen eta pertsonen artean.
- Parte aktiboak estaltzea eta babestea.
- Instalazio elektriko bakoitzari dagozkion etengailu diferentzialak erabiltzea.
- Elikatze-transformadorearen neutroa isolatzea.

Zeharkakoak:

Sistema gaizki funtzionatzen duenean tentsioa behar ez dagozkien parteetara iristen da. Zeharkako kontaktuak parte horiekin gertatzen direnak dira.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Prebentzioa

- Instalazioaren zirkuituak behar den bezala bereiztea eta elkarrengandik isolatzea.
- Segurtasun tentsioak erabiltzea zirkuituan, pertsonak ukitu ditzaketan zatieta.
- Isolatze-neurri egokiak erabiltzea.

• Arrisku elektrikoaren prebentzioa.

- Karkasak, koadroak, kutxak etab. irekitzeko giltzak euren arduradunen esku egongo dira soilik.
- Instalazioak aldiro ikuskatzea eta gaizki dauden aparatuak aldatzea.

- Aparaturik ez irekitzea linearen deskonexioa egin baino lehen.

- Instalazioa kanpotik eta barrutik garbi mantentzea. Ez aldatu aireztapen-zirrikituak.

- Ez ipini lurrera edo laburrean ageriko tentsiorik ez duten kableak.

- Argi eramangarriak aldatu nahi izanez gero, segurtasuneko argiak direla egiaztatu behar da aldez aurretik.

- Ez egin lanik soldagailu, harri edo zulagailuarekin aldez aurretiko neurriak hartu gabe (C.I.).



• **Babes pertsonalerako neurri orokorrak.**

- Segurtasun gerrikoa.
- Segurtasun kaskoa.
- Segurtasun aulkia eta alfonbratxoa.
- Eskularru dielektrikoak.
- Segurtasun arropa.

Soldadura lanak

Soldadura lanak metalezko bi zati lotzeko egiten direnak dira; lotura hori bi eratan egin daiteke: bata, metalak berotuz; bestea, metalak berotuz beste metal

baten laguntzarekin (elektrodoa). Beroz hornitzen duen energiaren arabera soldadurak bi modu hauetan egin ohi dira:

- Arku elektriko baliatuz,
- Sugarraz (sopletea); sugar hori oxiazetilenikoa izaten da normalean.

Soldadura elektrikoak

Arrisku nagusiak ekipoan edo prozesuan aurkitzen ditugu:

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

- Elektrokuzioa.
- Txinpartak.
- Erredurak
- Kea.
- Partikulak jaurtitzea.
- Erradiazioak.

Prebentzioa

- Pintza, kable eta konexioak isolatzea.
- Lur-hartune egokiak.
- Babes diferentzial egokiak.
- Begiak egokiro babestea, betaurrekoak edo beira bereziko pantailak erabiliz.
- Kromorekin zurratutako larruzko jaka luzeak, amantalak, eskularruak eta polainak erabiltzea.
- Suteak eragin ditzaketen txinparta edo elektrodoak dituzten zonak kontrolatu behar dira.
- Lekua behar duen aireztapenaz hornitzea.

• Gas soldadura.

Errekuntza erregai bat (oxiazetilenoa) eta karburante bat (oxigenoa) nahastuz gertatzen denez, honako hauek dira arrisku nagusiak:

Botiletan:

- Ihesak konexioetan.
- Aireztapen falta.
- Pita behar baino beranduago piztea.
- Oxigenoa leku itxietan hornitzea.


Euren prebentzioa zuzentze-neurri logikoak egitean datza.

Presio-erreguladoreetan:

- Kolperik ez ematea.
- Xaboizko ura erabiltzea ihesak detektatzeko.
- Ez irekitzea pitaren kanila presio-erreguladorea irekita dagoenean.
- Ez koipeztatzea oxigenoko presio-erreguladorea.
- Ez instalatzea presio-erreguladorerik akatsak dituzten harietan.
- Itzulera-contrako balbulak jarri direla egiaztatzea.
- Gomazko hodiak garbi eta egoera onean daudela egiaztatzea.
- Sopleletan: sugarrak eta gasa atzera joatea eragotzi behar da.
- Soldadura elektrikoan suteen eta beroaren kontra erabiltzen diren neurri berdinak erabiltzea.

Mantenimendu lanak.

Itsasuntziaren mantenimendua itsasuntzia funtzionazteko eta jardunean mantzentzeko egiten den operazio-multzoa da.



Itsasuntzia talde baten lantokia denez, mantenimendua marinel guztien kontua da. Izan ere, mantenimenduaren arriskuek eta lan horretan egon daitezkeen akatsek guztiengan dute eragina.

Itsasuntzirako sarbidea

Itsasuntziko sarbidea gaizki mantentzeak edo ez mantentzeak, edo, nahi genukeen baino sarriagotan, ardugabekeriak, zabarkeriak edo ohitura txarrek bi arrisku nagusi sortzen dituzte:

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

- Itsasuntzian erortzeko arriskua.
- Itsasora erortzeko arriskua.

• **Prebentzio neurriak.**

- Baranda, eskudel edo kandeleroak dituzten eskailera edo plantxak jartzea.
- Segurtasun sareak erabiltzea.
- Ateak salbamendu-aro bat izan behar du, erribaza luzerekin eta automatikoki pizten den argi batekin.
- Abarloatutako (elkartutako) itsasuntzietan eskala kareladunak jarri behar dira.

Pasabideak

Itsasuntzian egoteak eta mugitzeak berak arrisku ugari sortzen ditu marinelentzat. Arrisku horiek aurreikusita egon behar dute itsasuntziaren mantenimenduan.

• **Kubierratik ateratzen diren elementuak.**

Elemento horiek (henbrilak, bitak, etab.) ezinbestekoak dira itsasuntzirako, eta, horrenbestez, ezinez-

koa da kentzea; hala eta guztiz ere, badago egin daitekeen zerbait: paso gutxiagoko lekuetan jar daitezke eta modu ikusgarrian pintatu, ingurunetik nabarmentzeko. Eskotilak, tanbutxuak eta antzeko elementuak zehiarreko marrez seinala daitezke, kolore gorria eta zuria edo horia eta beltza tartekatuz.

Eskotiletako tapek itxita egon behar dute lanean inor ez dabilenean, edo, bestela, babestuta eduki behar dira.

Kubiertan, itsasuntziaren kulunkaren ondorioz mugi daitezkeen elementu mugikor guztiak lotuta edo gordeta egon behar dute, eta soka guztiak bilduta utziko dira.

• **Kubierta labaingarri egon daiteke.**

Hezetasunak, arrain hondakinek, olio isuriek eta antzekoek oso labaingarri utz dezakete itsasuntzietako kubierta.

Kubiertak labaintzearen kontrako sistemekin tratatu behar dira:

- Kubiertako pintura harearekin nahastea.
- Labaintzearen kontrako pintura eta esmalteak erabiltzea.
- Pasabideetan, labaintzearen kontrako xafla itsagarriak erabiltzea.

Kubierta urez garbitu behar da, hondakin labaingarriak kentzeko.

Altuera desberdinetan egiten diren lanak.

Horrelako arriskuak hauexek dira:

• Kubiertara doazen sarbideetan erortzea.

Kasu horietan edozein edifiziotako eskaileretan dagoen arrisku berdina egongo litzateke, nahiz eta itsasuntzietako eskailerak aldapatsua-
goak diren eta mugimenduan dauden. Hala eta guztiz ere, sarritan ikusten dira inolako barandarik ez duten txapazko eskailerak, oso erabilera zailekoak.

• Kubiertaren azpiko sarbideetan erortzea.

Bodega, hozkailu, logela, makina-
gela etab.eko sarbideetan oso ohi-

koa da esku-eskalak ikustea, finko-
ak edo erdi-finkoak, bertikalak edo
ia bertikalak.

• Masta, portiko eta antzekoeta- rako igobideetan erortzea.

Kasu horietan, eskalak mastetara
soldatutako maila independientez
osatuta egoten dira, eta euren
arriskuak kubiertan dauden eska-
letakoen antzekoak dira, nahiz eta
oraingo kasuan handiagoak diren;
izan ere, itsasuntziaren mugimen-
duak eta masten altuerak areagotu
egiten dituzte oszilazioak.

Prebentzio neurriak honako hauek
izango lirateke:

- Eskalako mailen arteko tartearak txikia izan behar du.
- Maila egokiak aukeratu behar dira, hau da, oinak alboetara mugitzea eragozten duten mailak aukeratu behar dira.
- Esku eskalak mailei begira erabili behar dira, ez mailei bizkarra emanaz.
- Esku eskalak erabiltzean alboko langa edo euskarriei heldu behar diegu, norabide horretan ez erortzeko.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

- Eskalak ez dira eskuak okupaturik ditugunean edo karga daramagunean erabili behar.

- Altuerako lanak egitean langilearen egoera fisiko eta psikikoa eza-gutu behar dugu. Pertsona guztiek ez dute altueran erreakzio berdina izaten.

- Altuerako lanik eginez gero, ofiziale arduradunari jakinarazi behar zaio.

- Babes kaiolak instalatzea, eskalatik behera ez erortzeko.

- Segurtasun gerrikoak erabiltzea; gerrikoak lotze-mosketoi bat izango du mastaren parean, soka batekin mugi daitekeena, eta, halaber, erorketak eragozteko blokeatze-sistema bat.

- Babes metodo estatiko (sareak) edo dinamikoak (segurtasun gerrikoak) erabiliko dira.

Kolpeak lanabesekin

Lanabesak erabili eta gero paneletan gorde behar dira ordenatuta eta -eror ez daitezen- lotuta.

Ertzak, puntak eta gainerako tresna

zorrotzak euren zorroetan egongo dira garraiatzen diren bitartean.


Garraiorako, beraz, zorro sendoak, baldeak etab. erabiliko dira; horri esker eskuak libre egon daitezke beste zerbait egiteko, adibidez: eskaileretan igotzeko. Bestela, eskuak okupatuta izateak lanabesak leku desegokietan -plataforma edo aldapetan, hau da, lanabesak eror daitezkeen lekuetan- uztera bultzatzen dezake; lanabesak ez dira, inoiz ere, poltsikoan eramango.

•Gakoen mantenimenduan egin beharrekoa.

Maniobrako gakoek aipamen berezia merezi dute; izan ere, gako horiek istripu larriak eragiten dituzte askotan, eta, horrenbestez, kontrol eta mantenimendu egokia behar dute.

Bi gako mota daude, baina arrunte-na gako puntaduna da; gako horrek segurtasun kisket edo sarraila bat izaten du, uztai, kable edo soka atera ez dadin.

Babes pertsonaleko
ekipoak.



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Aukeraketa

Babes pertsonaleko ekipoak marka edo fabrikatzaile desberdinekoak izan daitezke, baina, edozein kasutan, kalitatea bermatzen duten homologazio arauak bete behar dituzte guztiek.

Egiaztapena

Babes pertsonaleko ekipoak jasotzen direnean, eman diegun xedeetara egokitzen direla egiaztatu behar dugu. Marka eta homologazioaren oinarritzko eskakizunak betetzen direla egiaztatu behar dugu. Marka eta eduki ofizialak ez dituzten ekipoak ez dira onartuko.

Oinetakoak

Segurtasun oinetakoen erabilpena ezartzea oso zaila izaten da, marinel askok ez baitituzte onart-

zen. Gaitzespen jarrera hori ulergarria da ekipoaren alderdi ergonomikoa kontutan hartu ez bada.

• **Alderdi ergonomikoak.**

- Oinetakoek erosoak izan behar dute, hau da, ez dira zurrunik edo astunak izango eta ez dute marruskadurarik egingo oinetan.

- Tenperatura hartu behar da kontutan.

- Zerbitzu medikoek esaten dutena hartu behar da kontutan: behatzetan egon daitezkeen malformazioak edo bestelako arazoak aztertu behar dira oinetakoak aukeratu baino lehen.

• **Ezaugarri orokorrak.**

- Oinetakoen punta kolpeetatik babestuta egongo da.

- Oina estaltzen duen materialak agente kimiko eta biologikoetatik babestuko du.

- Oinetakoek labaintzearen kontrako zolak izango dituzte. Zola laua duten gomazko oinetakoak oso labaingarriak dira zoru bustietan. Materialezko zola hobe da zoru bustietan. Erme egon: abrasioa gutxitu egiten da sortzen den ur-pelikularen ondorioz.

Eskularruak

Eskuak agente agresiboetatik babesten duten arropak dira. Lan motaren arabera honelakoak izan daitezke:

- Lan gogorretan (maniobra, mantenimendua, etab.) erabiltzen direnak.

- Arraina maneiatzeko erabiltzen direnak.

- Arrisku elektrikoen kontrako eskularruak.

- Produktu kimikoak maneiatzeko erabiltzen direnak.

Horiek guztiek honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Erosotasuna (neurri egokia).
- Malgutasuna.
- Kontserbazio erraza.

Elektrizitatetik babesten duten eskularruak erabili baino lehen intsuflatu egin behar dira. Poroetatik galtzen badute, deformatzen badira edo arrakalatzen badira, *bota itzazu*.

Euren eginkizunaren arabera larruzkoak, plastikozkoak, labaintzearen kontrako kanpo-azalerakoak, etab. izan daitezke. Merkatuan eskaintza ugari dago.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Ur arropa

Oso arropa ohikoa da marinelen artean. Gorputza uraren -bai euriaren eta bai zipriztinen- kontra babesten du.

Hiru osagai ditu:

- Txanoa.

- Jaka.
- Praka.

Bete behar dituzten baldintzak:

- Ura pasatzen ez uztea.
- Pisu gutxikoak izatea.
- Kontserbazio errazakoak izatea.
- Kolore argiak (horia, laranja, etab.)



Segurtasun gerrikoak

Euren xedea -erorketa eragotzi gabe- erorketaren tarte ahalik eta gehien murriztea da (normalean metro bat eta erdian utziz). Tarte hori kableak edo sokak itsasuntziaren elementu finko bateraino duen distantzia izaten da.

Arnesa segurtasun gerrikoa baino gomendagarriagoa da, azken horrek baino kontaktu-puntu gehiago baititu gorputzaren.

Itsasora zuzenean erortzeko arriskua dagoenean ez dira gerrikoak edo arneseak erabili behar, baizik eta erribaza bat; erribaza horrek itsasuntziko barandari -edo erorketaren tarte handiena baino luzeagoa den beste edozein elementu finko bati- egon behar du lotuta mutur batetik.

Modu horretan, gorputza libre erortzen da uretara, baina ez da guztiz hondoratzen; istripua izan

duena ur gainean geratzen da, erribazari eutsiz, eta, aldi berean, erribazaren beste muturra gerriari lotuta dauka. Itsasuntzian lotutako soka-muturrak eskura egon behar du, soka erraztasunez bildu ahal izateko.

Arnasketa-bideak

Babes mota hau aukeratzekoan puntu hauek hartu behar dira kontutan: agente kutsagarriaren arriskua eta oxigeno nahikorik ote dagoen (%10 baino gehiago, bolumenean).

Babes motak:

- Autoiragazkia duten mozorroak: hautsa bai baina produktu toxikorik ez dagoen kasuetarako.
- Larrialdietan erabili beharreko mozorroak: toxikoaren eragin-ingurunetik ateratzeko.
- Lanerako mozorroak: iragazki edo konexioekin erabili behar dira arnasteko moduko airea eskuratzeko.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.


Oso garrantzitsua da mozorroen *hermetikotasuna* egiaztatzea. Okerreko erabilerek *arriskuan jar dezakete bizia*.

Aire amasgarria hornitzeko eki-
poak:

- Aire linea, iraupen luzeko man-
tenimendu lan konkrituak egiteko.

- AAE-ak (Amasketa Autonomorako
Eki-poak) erabateko autonomia behar
denerako (nahiz eta denbora muga-
turako izan).

Sevimar Hitzarmenak, zirkuitu
zabalean soilik baimentzen ditu
AAE eki-poak.



Begiak

Ekipoaren aukeraketa agresio
eta agente motaren arabera
egingo da:

- Fisikoak. Soldadurak igorritako
beroa eta erradiazioak. Pantailak,
soldatzeko betaurrekoak edo
aurpegiko pantailak erabili
behar dira.

- Kimikoak. Likido, gas edo haut-
sa. Mozorroa, betaurreko pano-
ramikoak edo aurpegiko pantai-
lak erabili behar dira.

- Mekanikoak. Gauza mekaniko-
en jaurtipena. Itsasuntzian oso
normala da begietan partikulak
sartzea: alde batetik, metalezko
partikulak kubiarta pikatzean;
bestetik, arrain ezkatat harrapa-
tutako arrainak prestatzean.
Segurtasun betaurrekoak erabili
behar dira.

Marinelek urrun egon behar
dute sareetatik erortzen diren ur
tantetatik. Narritadurak eragin
ditzake larruazalean eta -berezi-
ki- begietan.

Fondako

lana.

Fondan lan egiten dutenei ez zaie esperientzia edo prestakuntza handirik eskatzen; aitzitik, normalean eskatzen dena sukaldean nolabaiteko trebetasuna izatea eta gestio ekonomiko ona -diru aurrezteagitea izaten da, besterik ez. Gutxitan hartzen da kontutan elikagaiak maneiatzeko langileak duen prestakuntza maila.

Fondako langileen prestakuntza falta horrek eragin ditzakeen arriskuak oso ugari dira. Ikus dezagun laburpen bat:

- Elikagaietan germenak garatzen dituzten faktoreak.

- Germenak elikagaietara transmititzeko sistemak:

- Nondik datoz germenak? Zer da eramailea?

- Zer da elikagai-toxikapena? Zein dira garrantzitsuenak?

- Dietak

- Ulertzen duzu dieta orekatuen garrantzia?

- Konturatzen al zara dieta egiteko beharraz?

Arrisku horien guztien prebentzioak lanbide heziketa serio eta osoa eskatuko luke.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Sukaldeko lanak

Itsasuntzietako sukaldean lan egiten dutenek etxeakoandreek edo ostatuetako langileek pairatzen dituzten arrisku berdintsuak izaten dituzte. Hala ere, kasu honetan larriagoak dira, lantokia mugimenduan dagoelako.

Lan hauetan sortzen diren arrisku nagusiak hauexek dira:

- Erredurak.
- Zauriak.

Erredurak nahi gabeko kontaktuen eraginez gertatu ohi dira, oreka galtzeagatik edo arretaz ez ibiltzeagatik. Kontaktu horiek zenbait kausa izan ditzakete: sukaldeko sute edo puntu beroak ukitzea; kulunkaren ondorioz likido beroak isurtzea; axolagabekerien ondorioz erregaiak piztea; sukalde edo instalazio desegokiak.


• Prebentzio neurriak.

- Sukaldeek, suteen inguruan bereziki, barandak edo heldulekuak izan behar dituzte marinelak bermatu ahal daitezen; horri esker, itsasutziaren kulunka konpentsatzen da.

- Gauza beroak maneiatzean eskuek babestuta egon behar dute.

- Instalazio elektrikoek ez dute inolako akatsik izan behar; akatsik egonez gero berehala konpondu beharko da.

- Propanoa, butanoa edo antzeko erregaiak sukaldean erabiltzen dituzten instalazioak hodi zurruneekin egin behar dira, hodi malguak jarri beharrean; nolana ere, hodi malguak erabiltzekotan urtero aldatu egin beharko lirarteke.



- Hodiak ixteko giltzak seguruak izango dira, konturatu gabe zabal ez ditzaten.

- Bonbonak kubiertan instalatu behar dira, eta hortik sukaldea-rekin komunikatu.

- Ontzi bat jarri behar da hondakin eta zaborra botatzeko; ontzi hori sarritan hustu behar da kanpoaldean, ahal den kasuetan.

- Langile guztiak trebatuta egongo dira suitzalgailuak edo gerta daitezkeen suteak (olioa, koipea, elektrikoa, etab.) itzaltzeko tresna egokiak erabiltzeko.

- Ordena eta garbitasuna zehatz-mehatz zainduko dira, elikagaiak kutsatu edo tripulazioaren osasuna arriskuan jar dezaketen animaliak (arratoiak, saguak) edo insektuak (euliak, labezomorroak, etab.) ager ez daitezen.


Ganbuzan eta hotz-ganbaretan egiten diren lanak

Hona hemen lan horietako arrisku nagusiak:

- Kolpeak: itsasuntziaren kulunkak gauzak mugitu eta botatzen ditu.

- Erorketak: hezetasunak, izotzak edo hondakinek eragindakoak.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.



• Prebentzio neurriak.

- Hotz-ganbaretako sarreraren ondoan dagoen inguruak labaintzearen kontrako babesak izan behar du.
- Elikagaiak ontzi egokietan, armairuetan edo apalategietan gorde behar dira; horrela ezin izango dira mugitu eta ez diote inori kalterik egingo.
- Garbiketarako produktuek oso ondo ordenatuta eta seinaleztatuta egon behar dute, eta ez dira elikagaien pakete edo botiletan gorde behar.
- Hotz-ganbarek barrutik piztu daitezkeen alarmak eta zabaltze-sistemak izan behar dituzte. Esparru horiek erabiltzen dituztenek gai izan behar dute atea edo alarma iluntasunean aurkitzeko.

Seinaleak

eta alarmak.

Seinale eta alarmen helburua estimuluak bidaltzea edo arreta erakartzea da, baina arriskua ezabatu gabe.

Seinale optikoak

Honako hauek dira: segurtasuna, balizajea eta segurtasun eta urgentziako argiak.

Segurtasun seinaleak

Oinarrizko elementuak hauexek dira: kolorea eta forma

Esanahia	Segurtasun koloreak Kolorea	Seinalearen forma Errotulazioa
Debekua	Zuria, ertz eta banda gorriak	Beltza
Abisua	Horia, ertz beltzak	Beltza
Betebeharra	Urdina	Zuria
Salbamendu edo laguntza	Berdea	Zuria

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

• **Piktogramak.**

Zenbait kasutan, seinalea ez da nahikoa izaten transmititu nahi den mezua argi eta garbi azaltzeko. Orduan piktogramak erabiltzen dira. Piktograma horiek ahal bezain ondo isladatu behar dute oinarritzko ideia, interpretazioa errazteko.

• **Segurtasun abisuak.**

Segurtasun abisuetan komenigarria da segurtasun koloreak errespetatzea. Ondoko kasuotan erabili behar dira: segurtasun seinalea nahikoa ez denean eman nahi den informazioa emateko, edo mezu hori eman dezakeen seinalerik ez dagoenean.

• **Etiketak.**

Etiketak merkantzetan ageri diren seinaleak dira; informazioa ematen diete merkantziak maneiatu edo mugitzen dituzten pertsoneri. Informazioa hori beharrezkoa izaten da merkantzien edukia arriskutsua denean

edo merkantziek zaintza berezia behar dutenean (segurtasuna arriskuan jar dezaketelako).

• **Koloreen beste aplikazio batzuk.**

Erreferentzia dira beste edozein beharretarako: itsasuntzian egon daitezkeen arriskuei buruz informatzea eta orientatzea, edota gauza edo giroak identifikatzea, azpimarratzea edo aldatzea.

• **Aplikazioak.**

- Gauzak identifikatzea.
- Kable elektrikoak identifikatzea.
- Makinak identifikatzea.
- Hodiak identifikatzea.

• **Balizajea.**

Balizajea informazio sistema optiko bat da, zehaztu gabeko arriskuen kasuan erabiltzen dena. Koloreen eraginkortasuna aprobetxatzen du horrelako informazioak emateko. Adibidea: kubiertan oiloa isuri dela adieraztea, korridoreak orain dela gutxi baldeatu direla eta labain-

garri daudela azaltzea, makina-geleko koadro elektrikoak seinalatzea, etab.

Banderatxoak, zinta zabalak edo oihal zintzilikariak erabiltzen dira, nahi den segurtasun kolorekoak, eta ingurua mugatuz jartzen dira.

• **Segurtasun argiak.**

Euren helburua pertsonak erraztasunez eta segurtasunez eba-kuatzea da. Oztopoak seinalat-

zen dituzte, iraupen eta intentsitate egokia duten argien bidez.

Seinale akustikoak

Errazenak mekanismo bati eraginez soinua erabiltzen dutenak dira.

Seinale akustikoa eraginkorra da egoera kritikoen edo larrialdien berri emateko; adibidez: alarmak sua dagoenean, itsasuntzitik atera beharra dagoela adierazteko.



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Barne errejimenerako seinale akustikoak (nazioarteko mailan onartuta daudenak salbu) ez daude normalizatuta, eta, hortaz, itsasuntzi batetik bestera alda daitezke. Nolanahi ere, tripulazioaren kide guztiek ezagutu behar dituzte bai seinaleak eta bai euren esanahia.

Seinale akustikoak egiteko itsasuntzian gehien erabiltzen diren aparatuak hauek dira: txilibituak eta kanpaia edo gonga.

Alarmak

Tripulazioaren kide guztiek gaitan behar dute urgentziako seinale guztiak -inolako zalantzarik

gabe- ezagutzeko eta bereizteko: sutea, arriskua, itsasuntzia uztea, eta "gizona itsasora".

• Urgentziako alarma orokorreko seinalea.

Nazioarteko arauen arabera honako hauek dira: zazpi -edo gehiago- txistualdi labur, gero txistualdi luze bat, itsasuntziko txibilituak eta beraren alarmako sistema orokorrak eginak, eta bukatzeko mezu bat (beste seinale bat).

Seinale horien helburua marinelak biltzeko tokietara deitzea da, ondorengo ekintzak antolatzeko.

Maniobrak. Suteen kontrakoak, itsasuntzia uztea eta **gizona itsasora.**

Urgentziazko egoerak

• **Kausak/faktoreak.**

Estrukturalak:

- Itsasuntziaren egoera.
- Kargaren ezaugarriak.

Gizakienak.

- Tripulazioaren egoera.

Ingurunekoak.

- Ingurunearen ezaugarriak.
- Itsas bidearen ezaugarriak.
- Trafikoaren egoera.

Soziologikoak eta sozioekonomikoak.

- Marinela/makina egokitzapenari lotutakoak.

Betebeharren koadro organikoa

Koadro hori SOLASen II/83 kapituluaren, 8. eta 53. arauetan, dago araututa.

Bizirik irautea azkeneko helburua da sute eta arrisku egoeretan; "itsasuntzia uztea" eta "gizona itsasora" egoeretan, berriz, erabateko garrantzia du.

• **Tripulazioaren prestakuntza.**

Prestakuntza eta trebakuntza egokiak izatea ezinbestekoa da itsasuntziko ekipoak, kolektiboak zein indibidualak, erabat aprobetxatzeko.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

• Prestakuntza oso eta eraginkorraren sekuentzia.

Prestakuntza horrekin honako hau bilatzen da:

- Bizirik irauteko, itsasuntzia uzteko eta salbamendurako teknikak ezagutzea.

- Itsasuntziko tresna eta ekipoak ezagutzea, euren erabilera eta mantenimenduarekin batera.

- Aldizkako ariketa praktikoak egitea itsasuntzian eskura dau den ekipoekin.

• Suteen kontrako mantenimendua.

Teknika eta ekipo egokiez baliatuz gero badugu sutea kontrolatzeko aukera, sutearen hasieran ekiten badiogu. Hasieran lortzen ez bada arriskutsua izan daiteke geroago.

Suaren hedadura eragozten duen edozein bitarteko lagungarria izango da geroago, itsasuntzitik atera behar izanez gero.

Tripulazioa txikia denean, suteen kontrako sistema finkoen aplikazioa nahikoa ez bada, ekintza pertsonalak aukera gutxi izango ditu sutea kontrolatzeko, eta, hortaz, itsasuntzitik alde egiteko fasea lehen unetik hartu beharko da kontutan.

Suteen kontrako maniobra-ariketak eginez hauxe lortu nahi da:

- Itzalketa-ekipoak eraginkorrak izatea.

- Taldeka lan egiten ikastea.

- Suteen kontrako tresna guztiak erabiltzea.

→ Maniobrak. Suteen kontrakoak, itsasuntzia uztea eta "Gizona itsasora".

Su motak.


Erregai mota	UNE	DIN-AFNOR	NFPA
Solidoak	A	A	A
Likidoak	B	B	B
Gasak	C	C	B
Metalak	D	D	D
Elekrikoak	-	E	C

DIN: Alemaniako araua - AFNOR: Frantziako araua - NFPA: Arau amerikarra

Itzalketa-agenteen eraginak su motaren arabera

Ura	A mota	
Hauts kimikoak	A B C motak B C motak	(balio anitzekoak) (normalak)
Halogenoak	B C motak	
CO2	B C motak	
Aparra	B mota A mota	(salbuespenak salbu)
Hauts bereziak	D mota	

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.



• Itzalgailu eramangarriak.

Itzalgailuak edozein sutetan gehien erabiltzen diren ekipoak dira: oso eraginkorrak dira, erraz maneiatzen dira, txikiak dira, mantenimendu gutxi behar dute eta merkeak dira.

Hala eta guztiz ere, horrelako ekipoak izatea ez da nahikoa: erabili ere ongi erabili behar dira, hau da, euren errendimendua guztiz aprobetxatu behar da.

• Itzalgailuak ondo erabiltzeko aholkuak.

- Deskargako mangerari heltzea.
- Asegurua kentzea.
- Itzalgailua aurrerantz makurtzea eta jaurtiketa-palankari eragitea.

• Itzaltzeko arau orokorrak.

- Itzaltzeko substantzia sutetik ahal bezain hurbil botako da, zorrotada areago kontzentratzeko.

→ Maniobrak. Suteen kontrakoak, itsasuntzia uztea eta "Gizona itsasora".

- Zorrotada sugarren oinarrira bideratuko da, hor sortzen baitira suaren erreakzio kimikoak.

- Sutea itzalgailu osoa erabili baino lehen itzaltzen bada, komenigarria da itzalgailuaren eduki osoa agortzea; izán ere, horri esker temperatura-gradiente handiagoa lortzen da, eta horrela desagertzen da sua berriz pizteko arriskua.

- Ahal den guztietan itzalgailu batzuk erabiliko dira aldi berean, sugarren kontrako fronte bat egiteko.

Itzalgailuak erabiltzen direnean, itzalketa-lana hasten duen itzalgailuaz gain beste itzalgailu batzuk ere egongo dira prestatuta,

lehenengoaren eraginkortasuna murrizten denean haren ordeztu erabiltzeko.

- Aire-korronteak daudenean edo haizea dabilenean, haizaldek haizebera jardun behar da; horrela ez da kearen eragina pairatzen eta sugarrak ezin dira aurreko posizioetara itzuli.

Itsasuntzia uztea

Hil ala biziko egoeretan, *gehien-goaren* segurtasuna da lehentasuna daukana.

Itsasuntzia uzteko erabakia itsasuntziak babesten ez duela argi ikusten denean hartzen da soilik.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

• **Urratsak.**

- Itsasuntziko sektore guztien estankeitatea mantentzea.

- Elementuak leherketen eraginetatik babestea.

- Egoera eta laguntza ekartzeko modurik egokiena ezagutzen saiatzea.

- Itsasuntzietan egon ohi diren ekipoak (mantak, etab.) salbamendu-txalupetan sartzea.

- Tripulazioa deitu eta biltzea, ebakuazio-ordenari eutsiz.

“**Gizona itsasora**”

• **Salbamenduaren faseak.**

- Larrialdi seinalea.

- Salbamendu-aroak botatzea marinela erori den aldetik.

- Itsasuntzia “gizona itsasora” deritzan maniobra egingo du.

- Salbamendu-txalupa itsasoratzea.

- Eroritako marinela hartzea.

• **Porrota eragin dezaketen arrazoiak.**

- Inork ez du istripua ikusi.

- Seinale desegokiak.

- Marinela hil egin daiteke salbamendua berandu egiten delako edo tenperatura hotza delako.


- Igeri egiten ez jakitea.

- Kolpe baten ondorioz konortea galtzea.

- Marrazo edo kaioen erasoak.

Irratiaren bidezko

kontsulta medikoak.



5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

Hasiera batean zalantzan jar liteke, marinelen segurtasun eta osasunari buruzko lan honetan, irriariaren bidezko kontsulta medikoez hitz egiteko egokitasuna; kontutan hartu behar da, ordea, gaixorik dagoen edo istripu bat jasan duen marineleri laguntzeko modu bakarra irratiko konexioa izaten dela sarritan.

Irrati-kontsulta medikoa behar den bezala egiteko guztiz beharrekoa da kapitainak edo osasunaren arduradunak heziketa eta prestakuntza sanitarioa izatea.

Horrelako kontsultek zenbait zutabe dituzte, denak guztiz beharrezkoak eta elkarri erabat lotuak. Zutabe horietako batek huts eginez gero ezinezkoa izango litzateke kontsulta gauzatzea, edo ez luke baliorik izango.

Irrati-kontsulta medikoen zutabeak

• Irratia.

Itsasuntziak duen ekipoak bere posiziotik irradi zentro mediko batekin konektatzeko frekuentzia egokia izan behar du.

• Prestakuntza.

Irrati-zentro medikoarekin kontaktatzen duen pertsonak prestakuntza mediko nahikoa izan behar du, entzutzen dagoen medikuari marinelen gaixotasunari buruzko datu egokiak eman ahal izateko: gaixoari gertatzen zaiona eta berak antzematen diona kontatzeko gai izan behar du, baita medikuak esaten diona ulertzeko eta praktikan gauzatzeko ere.

Prestakuntza horren osagarri gisa komenigarria da itsasuntzian gida sanitario bat izatea, falta den informazioa hor bilatzeko.

• Botikina.

Irrati eta prestakuntza onak izatea ez da nahikoa; horrez gain, botikin ondo hornitua, ordenatua eta eguneratua eduki behar da itsasuntzian, hori lagungarria izango baitzaio medikuari tratamendu egoki bat -bilatzen den hobekuntza eskain dezakeena- aukeratzera.

1992ko martxoaren 31an argitaratu zen 92/29/EEE Zuzentarauan aurki ditzakegu laguntza medikoa itsasuntzietan sustatzera bideratutako segurtasun eta osasun arauak. Zuzentaru horrek proposatzen duenez, Europako estatuek ondoko neurri orokorrrak hartu behar dituzte itsasuntzietan dagokienez:

- Itsasuntzi orok egoera onean eta ondo horniturik dagoen botikin bat -bere erabilera-gidarekin- eduki behar du.

- 15 marinel baino gehiago dituzten itsasuntziek gela bat izan behar dute asistentzia medikoa gauzatzeko.

Marinelek.

- Asistentzia medikoari buruzko gutxienezko prestakuntza jaso behar dute; prestakuntza hori zabalagoa izango da kapitainentzat edo osasun arduradunentzat.

Estatuek.



- Irrati-zentro medikoak antolatu behar dituzte, tripulazioen premiazko tratamendu medikoak ziurtatzeko.

Irratiaren bidezko kontsulta medikoei laguntzen dieten tresnen artean aipatu beharra dago, adibidez, Espainiar Estatuko Merkataritza Untziteriako Gizarte Institutuak argitaratu duen lamina itsagarri bat. Itsagarria izatea oso lagungarria da: telefonia ekipoaren ondoko manporetan jar daiteke, eta, horri esker, irradiaren bidezko kontsulta medikoak egiteko zer-nolako urratsak egin behar diren jakiteko balio du.

5. Lan osasun eta segurtasun xedapenak arrantza ontzien barruan.

IRRATIAREN BIDEZKO KONT-SULTA MEDIKOA IRRATI-ZEN-TRO MEDIKOAREKIN HITZ EGIN BAINO LEHEN ONDOKO ARGI-BIDEAK IRAKUTZEA GOMEN-DATZEN DIZUEGU:

- Bete ezazu orri batean oinarrizko galderen erantzunak, edo presta itzazu erantzunak kontsulta hasi baino lehenago.
- Eskura izan zeure botikinak dituen sendagaien zerrenda.
- Gomendatzen diren sendagaietako bat ez baduzu, ez ahaztu horri buruz galdetzen.
- Lasai egon. Datuak ondo biltzea asistentzia egokiaren bermea da.



-Oinarrizko galderak-

- 1.-Norberaren datuak:
 - NAN
 - Izena
 - Abizenak
 - Jaiotze-data eta -lekua.
 - Itsasuntzian duen ardura.
- 2.- Non dago itsasuntzia?
- 3.- Zein da arazoa?
 - Saia zaitez gaixoari gertatzen zaio-na ahalik eta hoberen adierazten.
- 4.- Noizdanik dago gaixorik?
 - Minutuak.
 - Orduak.
 - Egunak.
- 5.- Nola hasi da?
- 6.- Non kokatzen da arazoa?
- 7.- Lehenengo aldiz gertatzen al zaio?
- 8.- Ondo arnasten al du?
- 9.- Pultsua nabaritzen al zaio?
- 10.- Sukarrik?
- 11.- Tratamendu medikorik izaten al du normalean?
- 12.- Zerbaiten alergia al du gaixotutako marinealak?
- 13.- Gaixotasun garrantzitsurik izan al du? Edo, operazioen bat egin al diote?
- 14.- Tabakoa, haxixa, alkohola, edo injektatu edo esnifutzen den substantziarik al du?